

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

## 3791

*208/2024 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, Aukerak, Gizarteratzearen Euskal Agentziako zuzendaria izendatzeko dena.*

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.j), 26.6 eta 29. artikuluetan eta Aukerak Gizarteratzeko Euskal Agentziaren estatutuak onartzen dituen urtarrilaren 11ko 5/2022 Dekretuaren 18.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko uztailaren 30ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Juan Carlos Romero Leon jauna Aukerak, Gizarteratzearen Euskal Agentziako zuzendari izendatzea.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko uztailaren 30ean.

Lehendakaria,  
IMANOL PRADALES GIL.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua,  
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.